



9. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko abuztuaren 2an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako Hiria eta udaletxea.

DATA: Bi mila eta zazpiko abuztuaren bia.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide jauna.
Ignacio Garmendia Aguirregabiria jauna.
Miren Edurne Baztarrika Bilbao andrea.

Lehendakaria:

Maidier Ziganda Población alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Obdulia Lorenzo de Dios eta Alvaro Ricón Rivera zinegotziek bere ezin etorria justifikatu dute.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 9:30ean, bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Alkateak bere eskuduntzak Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzteari buruzko Dekretuaren berri ematea.

Udal idazkariak Alkateak bere eskuduntzak Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzteari buruzko 2007ko uztailearen 12ko Dekretuaren berri eman du. Tokiko Gobernu Batzarrak jakinean geratu da.

2.- “Antxo Iparra urbanizatzea, c-2 eta c-3 faseak (Maiatzaren Lehena eta Kupeldegi kaleak)” obrak esleitzea.

ASMATU, S.L. enpresak idatzitako obra-proiektua onetsi zen.

Lan horiek kontratatzeke espedientea ere onetsita dago. Bertan adierazten da lanen aurrekontua 596.500,-- eurokoa dela eta prozedura irekia erabiliz, izaera arruntarekin eta enkante bidez esleituko dela kontratua. Kontratu honek zerikusia du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiako Udalak Pasaiako udalerrria birgaitzeko hainbat jarduketa koordinatu eta bultzatzeko sinatu duten lankidetzaz-hitzarmenarekin.

Eskaintza aurkezteko epea bukatu zen eta Kontratazio Mahaiak, aurkeztutako eskaintzak ireki ondoren, proposamen hauek onartu zituen:

- 1. proposamena: CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.-k 486.149,18 euroko eskaintza egin du.
- 2. proposamena: ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.U.-k 538.974,36 euroko eskaintza egin du.

Kontratazio Mahaiak proposatuta eta kontuan izanik 2007ko uztailaren 12ko alkatearen ebazpena, hots, Tokiko Gobernu Batzordearen eskuduntzak eskuordetzen dituen, bertako zinegotziek aho batez

ERABAKI DUTE

LEHENENGOA.- “ANTXO IPARRA URBANIZATZEA. C-2 ETA C-3 EREMUAK-MAIATZAREN LEHENA ETA KUPELDEGI KALEAK” obra egiteko lanak CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L. enpresari esleitzea. Kontratua 486.149,18 EUROKOA da, BEZ barne, eta indarrean dagoen udal- A-389/07 partidatik ordainduko da. Lana gauzatzeko BOST hilabeteko epea izango du.

BIGARRENA.- Esleipendunak 19.445,97 euroko behin betiko bermea, esleipenaren prezioaren % 4a, jarri beharko du ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hamabost egun baliouduneko epean. Halaber, aldizkari ofizialetan argitaratutako lizitazioaren iragarkiak ordaindu beharko ditu esleipendunak.

HIRUGARRENA.- Obra honek zerikusia du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiako Udalak Pasaiako udalerrria birgaitzeko hainbat jarduketa koordinatu eta bultzatzeko sinatu duten lankidetzaz-hitzarmenarekin, eta berau burutzeko epea bete beharrekoa denez, diru-laguntza galduko ez bada, eguneko 0,12 euroko zigorra ezartzen da 601,01 euro bakoitzeko.

Edozein kasutan, kontratistari adierazten zaio obra amaitzeko epea ez betetzeak kontratua etetea ekar dezakeela, eta horrek HAKTBren 113. artikuluan aurreikusten diren ondorioak ekarriko dituela: bermea bahitzea, eta eragin diren kalte-galeren indemnitazioa ordaintzea. Kasu honetan,



indemnizazio hori Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza publikoaren adinakoa izango da, obra hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiako Udalak Pasaiako udalerria sinatutako lankidetzeta-hitzarmena batean sartuta dagoelako.

LAUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta jar ditzakeen errekurtsoen berri ematea. Era berean, hamabost egunen buruan udalera agertu behar duela adieraztea, kontratua administrazio-agiri moduan formalizatzeraz; kontratistaren erruz hori egin ezean, udalak aukera izango du, interesdunarekin hitz egin ondoren, kontratua suntsitzeko, eta interesdunak kalteak eta galerak ordaindu beharko ditu.

3.- Arrandegi kaleko 13. zenbakiko etxaberako irekiera-lizentzia.

Espedientea Hirigintza eta Ingurumen Sailera itzultzea erabaki da, behar bezala izapidetu dadin.

4.- 1/07 zenbakidun kontuen eta fakturen zerrenda.

Puntu hau hurrengo bilerarako uztea erabaki da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:50ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.